



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2007ko azaroaren 15a

28. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Legea, alderdi politikoei 1.218.371 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2007ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzekoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

—Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Erabakia. Horren bidez, Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten. Osoko Bilkurak onetsia (5. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

—Erabakia. Horren bidez, RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan. Osoko Bilkurak onetsia (7. or.).

- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan. Osoko Bilkurak onetsia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-C eta NA-6840 errepideen aldaketaren proiektua idatz eta gauza dezan. Osoko Bilkurak bazter utzia (8. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean toki entitateen mapari buruzko eztabaidagune bat sor dezan. Bertan parte hartuko dute, berdintasun baldintzetan, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeak, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta toki entitateetako beste ordezkari batzuek, eta parte hartu nahi duten eragile guztientzat irekita egonen da. Osoko Bilkurak bazter utzia (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako eredu ekonomiko berri bat prestatu dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (10. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

- Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena. Osoko Bilkurak aintzat ez hartua (11. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Legea, alderdi politikoei 1.218.371 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2007ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2007ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Parlamenturako 2007ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa alderdi politikoei 1.218.371 euroko kreditu berezia emateko Foru Legea onetsi zuen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

**Foru Legea, alderdi politikoei
1.218.371 euroko kreditu berezia
ematekoa, Nafarroako Parlamenturako
2007ko hauteskundeetako gastuak
finantzatzeko dirulaguntza gisa**

Foru Legea, alderdi politikoei 1.218.371 euroko kreditu berezia ematekoa, Nafarroako Parlamenturako 2007ko hauteskundeetako gastuak finantzatzeko dirulaguntza gisa.

Nafarroako Parlamentuko hauteskundeak arautzen dituen azaroaren 17ko 16/1986 Foru Legeak bere 44. artikuluan ezarri duenaren arabera, Nafarroako Foru Komunitateak dirulaguntzak emanen dizkie alderdi politiko, federazio, koalizio eta hautesle-elkarteei, hauteskundeetako gastuak finantzatzeko.

Foru lege beraren 48. artikulua xedatuaren arabera, Nafarroako Gobernuak, Comptos Ganbe-

rak hauteskundeetako kontabilitateei buruzko txostena igorri eta ondoko hilabeteetan, foru lege baten proiektua aurkeztuko dio Nafarroako Parlamentuari, esleitu beharreko dirulaguntzen zenbatekoa hartzen duen kreditu berezia emateko; aipatu dirulaguntzak, aldiz, Parlamentuak proiektua onetsi eta ondoko hogeita hamar eguneko epean ordaindu beharko dira.

Foru lege honen xedea hauxe da: indarra duen hauteskunde araudian ezarritako agindua betetzea, 2007ko maiatzaren 27an Nafarroako Parlamenturako egindako hauteskundeek sortutako gastuak finantzatzeko laguntzarren.

1. artikulua. Alderdi politiko, federazio, koalizio edo hautesle-elkarteentzako dirulaguntza gisa 1.218.371 euroko kreditu berezia ematea onetsi da, 2007ko maiatzaren 27an Nafarroako Parlamenturako egin ziren hauteskundeen gastuak finantzatzeko. Aipatu kredituaren zenbatekoa 2007ko Nafarroako Aurrekontu Orokorren kontusail honi aplikatuko zaio: 010001-00001-4819-921100; izena, "Alderdi politikoentzako dirulaguntzak".

2. artikulua. Kreditu berezi hori 2007ko Nafarroako Aurrekontu Orokorretako "Aurreko ekitaldietako superabitaren aplikazioa" izeneko 112000-11400-8700-000000 kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzekoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Foru Komunitateko arartekoari buruzko uztailaren 3ko 4/2000 Foru Legearen 2. artikulua, 3/2005 legeko testu indardunekoa, aldatzeko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2007ko

irailaren 21eko 10. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Foru Lege proposamena, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzkoa.

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, zahartzaroko eta elbarritasuneko nahitaezko aseguruaren pentsioak (SOVI) jasotzen dituztenei, haien dirusarrerak lanbide arteko gutxieneko soldata baino gutxiagokoak direnean, laguntza osagarria emateari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Nafarroa Bai parlamentu-

taldeak aurkeztu eta 2007ko irailaren 28ko 11. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

E saila:
JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 8an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marco-tegui Ros

Erabakia. Horren bidez, Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen da azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten

1. Nafarroako Parlamentuak Toki Administrazioiko Departamentua premiatzen du azterlan bat egin dezan, horrela ikertzeko zer toki entitatek eskaintzen dizkieten zerbitzuak bereak diren herritarrei baino herritar gehiagori, zein diren zerbitzu horiek eta zer-nolako finantza-zama sortzen duten, parte hartzeko funtsa banatzeko formulatan kontuan hartua izan dadin, eta, kasua bada, egungo formulak alda daitezzen.

2. Azterlan hori legebiltzar honetan aurkeztu eta ezbaidatuko da.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batetik heldu dena: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko." Aipatu mozioa 2007ko urriaren 11ko 14. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoak diren neurriak har ditzan Nafarroako osasun publikoko itxaron zerrendak murrizteko

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ondokoak egin ditzan:

1. Behar diren neurriak hartu Nafarroako sare publikoko laguntza espezializatuko itxaron zerrendak % 50 laburtzeko.

2. Gehieneko itxaron epeak murriztu osasun laguntza programatuan, eta honakoak bermatu: gehienez, 30 egun naturaleko itxaron epea kontsultarako, 45 egun naturalekoa premiazkoak ez diren proba diagnostikoetarako eta 120 egun naturalekoa ebakuntzetarako eta gehienez ere 180 eguneko kirurgiako bigarren mailako prozedura batzuetarako, baldin eta haietan itxaronaldiak ez badu gaixoaren osasunak okerrera egiteko arriskurik ekartzen.

3. Hilero informazioa emateko sistema publiko bat sortu, herritar guztien eskura egonen dena eta itxaron zerrendetan zenbat gaixo dauden eta orokorrean batez besteko itxaronaldia zein den ezagutzeko, osasun sistema publikoko zentro eta zerbitzuetako kirurgiako zerrendetan, kontsultetakoetan eta proba diagnostikoetakoan.

4. Itxaron zerrenden egoerari buruzko txosten bat urtero prestatu, Osasun Departamentuak egina, zeina Parlamentuan aurkeztu beharko baita.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez."

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan Ezkabako Gotorlekua eta bere lurrak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez

1. Gehienez ere hiru hilabeteko epean, Nafarroako Gobernuari eskatzea beharrezkoa den prozedura berriro abiaraz dezan, Ezkabako Gotorlekua

eta bere lurrak eskuratzeko, Defentsa Ministerioaren lagapenaren bidez.

2. Nafarroako Gobernuari eskatzea mahai bat osa dezan, Ezkaba mendiko eta Alfontso XII.a gotorlekuko inguruarentzat izan daitezkeen aukerak aztertzeko. Mahai horrek gizartearen eta ingurumenaren arloko eragileez eta udalez osatua egon beharko luke, eta kontuan hartu beharko lirake, halaber, Nafarroan gerra zibileko oroimen historikoa gordetzearen alde eta, zehazki, eremu horren oroimen tragikoa gordetzearen alde lan egingen duten elkarteak.

Erabakia. Horren bidez, RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen: "RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Erabakia. Horren bidez, RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gobernua premiatzen dira eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan

Nafarroako Parlamentuak RTVE korporazioaren administrazio kontseilua eta Estatuko Gober-

nu premiatzen ditu eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskaintzeko gai den irrati eta telebista lurralde-egitura bat berma dezaten Nafarroan.

1.- Nafarroako herritarrei eskualdeari egokitutako edukiak dituen programazioa eskain diezaien, Nafarroako ondare artistiko, historiko eta naturalaren ezagutza sustatuko duena.

2.- Nafarroako gertakizun garrantzitsuei estaldura ematea, programazio bereziaren bidez, eskualderako deskonexioak ahalbidetuz.

3.- Nafarroako bi hizkuntza ofizialetan eginiko programazioa sustatzea, hau da, gaztelaniaz eta euskaraz.

4.- Informazio objektibo, egiazko eta askotarikoa bermatzea, erabat egokituko zaiona independentzia profesionalaren irizpideari eta Nafarroako aniztasun politiko, sozial eta ideologikoari.

5.- Berriazko edukiak ekartzea programazio nazionalari eta RTVEren nazioarteko kateei, lurraldearen kohesioa sustatzeko eta Nafarroa kanpoan ezagutarazteko, eta arreta berezia eskaintzea atzerrian bizi diren edo dauden nafarrei.

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2007ko azaroaren 9an egindako bileran, ondoko erabakia onetsi zuen, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio batetik heldu dena: "Nafarroako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan". Aipatu mozioa 2007ko urriaren 29ko 22. zenbakiko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 113. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agindu dut.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da suhiltzaileen kidegoan sartzeko adina mugatzeak dakartzan arazoak konpon ditzan

Nafarroako Gobernuari eskatzea behar diren arau-neurriak har ditzan etorkizunean suhiltzaileen lanpostuak betetzeko egiten diren deialdietan behar den segurtasun juridikoa egon dadin adin-mugari dagokion baldintza dela eta.

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-C eta NA-6840 errepideen aldaketaren proiektua idatz eta gauza dezan.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da N-121-C eta NA-6840 errepideen aldaketaren proiektua idatz eta gauza dezan".

Legebiltzarrak 2007ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako

mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko urriaren 5eko 12. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean toki entitateen mapari buruzko eztabaidagune bat sor dezan. Bertan parte hartuko dute, berdintasun baldintzetan, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta toki entitateetako beste ordezkari batzuek, eta parte hartu nahi duten eragile guztientzat irekita egonen da.

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

Nafarroa Bai parlamentu taldeak ondoko mozioa aurkeztu zuen: "Nafarroako Gobernua premiatzen da hiru hilabeteko epean toki entitateen mapari buruzko eztabaidagune bat sor dezan. Bertan parte hartuko dute, berdintasun baldintzetan, Nafarroako Gobernuak, parlamentu-taldeek, Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioak eta toki entitateetako beste ordezkari batzuek, eta parte hartu nahi duten eragile guztientzat irekita egonen da."

Legebiltzarrak 2007ko azaroaren 9an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aurkeztutako mozioa baztertzea. Mozio hori 2007ko azaroaren 6ko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako eredu ekonomiko berri bat presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2007ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozio hau: Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako eredu ekonomiko berri bat presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros

MOZIOAREN TESTUA

Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 185. artikulua babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, azaroaren 8ko Osoko Bilkuran eztabaidatutako jabelduraren ondorioz; mozio honen bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroarako garapen ekonomikoaren eredu berri bat presta dezan.

Zioak:

Aipatutako jabelduran agertu genituen hura aurkezteko zioak. Jabeldura eztabaidatu zen Osoko Bilkuran eta ondorio argia da Nafarroako Gobernuak, irailaren 18an hala iragarri bazuen ere, duen asmo bakarra dela azken legegintzaldi honetan gauzatu duen politika ekonomikoa gauzatu edo administratzen jarraitzea. Hau da, "garapen ekonomikoaren eredu berriaren" iragarpenaren atzean badirudi ezer ere ez dagoela, eredu

horren estrategia eta helburu nagusiak ezagutzea falta baita, zer sektoreri emanen zaion laguntza gehiago, eredu horren ezaugarriak eta abar.

Eztabaida ere nola joan zen ikusita, eta exekutiboa osatzen duten alderdietako eledunek zer hitzaldi egin zituzten, ondoriozta daiteke ez dagoela asmorik politika ekonomiko berririk inola ere formulatzeko eta gauzatzeko, baizik eta "betikoari eusteko" asmoa dagoela.

Gauzak horrela, arrazoizkoa eta gomendagarria dirudi Nafarroako Parlamentuak argi agertzea zein duen iritzia eta, halaber, exekutiboa premiatzea, gehiengoari egoki iruditzen bazaio, iragarritako eredu ekonomiko berria presta eta gauza dezan.

Eredu ekonomiko berri hori, parlamentu-talde honen iritziz, 2008-2013 eperako garapen iraunkorreko programa izeneko batean jaso beharko litzateke. Eragile ekonomikoen eta sozialen parte-hartzearekin eta haiekin hitzartuta prestatu beharko litzateke programa hori, eta gure erkidegoaren garapen integraleko benetako estrategia izan beharko luke, horrela era egokian aurre egiteko etorkizun ekonomikoari eta maila altua lortzeko enpleguaren arloan, enpresen produktibitate nahiz lehiakortasunean, errentan eta langile nafarren lan-baldintzen kalitatean. Hori guztia dela-eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduari bat, ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroarentzako eredu ekonomiko berri bat presta dezan, garapen integraleko estrategia gisa exekutiboaren politika ekonomikoa taxutzeko eta 2008-2013 eperako garapen integraleko programa bat osatzeko.

Iruñean, 2007ko azaroaren 8an

Eleduna: Roberto Jiménez Alli

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzeko proposamena.

OSOKO BILKURAK AINTZAT EZ HARTUA

Legebiltzarrak, 2007ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, erabaki zuen aintzat ez hartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztutako proposamena, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua aldatzekoa.

Proposamen hori 2007ko urriaren 11ko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2007ko azaroaren 12an

Jarduneko Lehendakaria: Jesús Javier Marcotegui Ros



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

**HARPIDETZA
ORRIA**

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonia *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri edo bertan sartu.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZKARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Navas de Tolosa, 1 31002 IRUÑA
Urtebete 45,15 euro	
Aldizkari Ofizialaren prezioa, aleko 1,18 »	
Bilkura Egunkariaren prezioa, aleko 1,34 »	